




Ostalaritzako kanpainan izena emateko gida

alimentos ecológicos
TAMBIÉN AQUÍ
HEMEN ERE,
elikagai ekologikoak



ÍNDICE

I. ATARIKOA	2
II. BALDINTZAK NNPEK	2
III. NNPEK-K ESKAINTZEN DUENA	3
IV SALTOKIEN BETEBEHARRAK	4

I. Atarikoa

Gida hau produktu ekologikoak azken kontsumitzaileari zuzenean saltzen dizkioten ostalariendako da: ***Jendearendako salmenta taberna, ostatu, jatetxe, kafetegi, okindegi eta abarretan.***

II. Baldintzak NNPEK

Kanpaina honetan parte hartu nahi duenak ondoko baldintzak bete beharko ditu:

- Elikagai ekologikoen salmenta zuzena azken kontsumitzaileari.
- Saltokiek irekiera lizentzia eta osasun erregistroa izan beharko dute.
- Gutxienez ere elikagai ekologikoen 10 erreferentzia eta 3 marka izatea.
- Bi kategoria bereizgarri ezarriko dira:
 - » **Zilarra:** saltokiak 10-30 eko-erreferentzia ditu, eta 3 marka
 - » **Urrea:** saltokiak 30 eko-erreferentzia baino gehiago ditu, eta 6 marka
- Elikagai ekologikoak baimenduriko agintaritzak edo kontrol erakundeek ziurtatuak izan behar dute.
- Saltokiek produktu ekologikoak eskuratu izanaren frogagiriak izanen dituzte eta, beharrezkoa bada, NNPEKren esku utziko dituzte.


Barne araudi honek ezartzen du zein diren printzipioak ekoizpen ekologikoa aipatzen duten publizitate oharren erabilera babesteko.

Urteko kuota: 50 €

Kanpaina honetan izena emateko "Ostalaritza Gunea" bihurtzeko eskabidea bete beharko da.

III. NNPEK-k honako hau eskaintzen du

- Sustapena eta hedapena bere hedabideetan (betiere nekazaritza ekologikoarekin lotuta)
 - » **Sare sozialak**
 - » **Webgunea:** Webgunean “Ostalaritza” izeneko erlaitza egonen da, parte hartzen duten ostalaritza guneen berri emateko, mapa interaktibo eta guzti.



- Saltoki bakoitzak nekazaritza ekologikoa dinamizatzeko, sustatzeko eta zabaltzeko antolatzen dituen jardueretan laguntza ematea.
- NNEPK-k sustapen materialak (une horretan dituenak) emanen dizkio establezimenduari, hala eskatuz gero.
- NNPEK-k elaboratzaile eta ekoizle guztiei emanen die kanpaina honen berri. Ekimen honekin eginkizun bikoitza bete nahi du:
 - » Nafarroako ekoizpen eta elaborazio ekologikoaren sektoreari laguntzea, haien produktuak saltokietan sustatuz eta esku-orriaren berri emanez, jakin dezaten zein saltokitan izan dezaketen saltzeko eta lankidetzan jarduteko aukera.
 - » Elikagai ekologikoak dituzten saltokiei laguntzea, saltoki horiei Nafarroako produktu ekologikoen berri emanez, eta saltokien sarea eta sektore ekologikoarekin loturiko hauen jarduerak hedatuz NNPEK-ko hedabideetan.
- Nafarroako sektore ekologikoaren hausnarketa jardunaldietan parte hartzeko aukera.
- NNPEK-k saltokiari emanen dizkio
 - » Nafarroako produktu ekologikoen katalogoa (online, www.cpaen.org).
 - » Kanpaina bukatzen denean, “hedapenerako azken esku-orria”
 - » Kanpaina bukatzen denean, “Ostalaritza etxe kolaboratzaileen azken mapa”
- Materialak: Banderatxoak, deko botilak, edalontzi-azpikoak, kartel mutuak, marka daramaten pegatinak: “Alimentos Ecológicos de Navarra: Ecológicos para vivir mejor”...

IV. Salmenta guneen betebeharrak

- Kanpainaren pegatina toki ikusgarri batean jartzea.
- Urteko kuota ordaintzea
- NNPEKri jakinaraztea kontratua arriskuan jar dezakeen zeinahi muntazko aldaketa.
- Produktu ekologikoak establezimenduaren barnean bereiztea NNPEK-k eskuratuko dizkion materialen bidez.

Saltokiak emandako datuak, argazkiak eta gainerako informazioa kontseiluaren webgune berrituan azalduko dira: www.cpaen.org (eremurik bisitatuenetakoa).

NNPEKren informazioa publikoa izanen da. Sektore ekologikoan “bat gehiago” izanen gara. Guretzat ez da soilik garrantzitsua nork ekoizten dituen elikagaiak, baita azken kontsumitzaileari nork saltzen dizkion ere. Indarra dugu eta gogoia geure burua garatzeko. Horretarako bideetako bat elkarren arteko harremana da, elkar ezagutzea, hedatzea zer ekoizten eta zer saltzen dugun”.



Iruñean, 2017ko urtarrilaren 1ean

NNPEK - Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseilua
Serapio Huici Etorb. 22. Perituen eraikina, (INTIAren bulegoak)

www.navarraecologica.org

www.cpaen.org

MÁS INFORMACIÓN / INFORMAZIO GEHIAGO

Fijo / Finkoa 948 17 83 32 - Móvil / Mugikorra 634 80 07 17

E-mail / E-posta eventos@cpaen.org